

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2010eko abenduaren 8a. VIII. urtea. 2.136. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Emakumeen sokatira, Sahara eta buruhandi zein erraldoiak, saridunak

Galtzaundik 'Eskerrak Zuri' aipamenak banatu ditu; Ohorezko Aipamena Mattin Amundarain euskaltzale amezketarrak jaso du ⁰³



Saridun guztiak Tolosako udaletxeko pleno aretoan. HITZA

Unai Igartua 'Sua' filmeko kidea

«'Sua' auzolanean eta gure denbora librean egiten ari garen pelikula da»

Sei urte eta gero Eneko Aritzaren Lagunak elkarteko kideek gertu dute estreinaldia ⁰⁷

→ **Egun pasa ala gehiago?** Irudian ageri direnak Castro Urdiales herriko Iñiguez de Onzoño familia osatzen dute. Turismo bulegoaren arabera, orokorrean Tolosaldeak bisitari asko jaso ditu Topic-ek, Txuletaren Festak eta bestelako ekitaldi edota paisaiek erakarrita, askok egun pasa besterik ez dute egiten, hala ere. ⁰⁴



Zatoz HITZAko bulegora zure mahai egutegiaren bila!





Gutunak

Tolosako espezialitateen anbulatorioa, ixterea doaz?

Azken lau urte hauetan Tolosaldean pixkanaka baina gelditu gabe ari da Asuncion Klinikari (pribatua) osasun zerbitzu publikoko espezialitateak bere gain hartzen; hori, noski, Tolosako espezialitateen anbulatorio-kalderako da, titulartasun publikoak, Osakidetzakoa eta Donostia Ospitalearen menpe dagoena. Dagoeneko desagertu dira Urologiako espezialitatea eta Oftalmologiako kupua, aipatutako klinikari eman baitzaizkio kudeaketak.

Orain gutxi gure anbulatoriara hainbat informazio iritsi da, ez ofiziala, baina ustez Donostia Ospitaleko goi mailako iturrietatik datorrena. Informazio honen arabera Tolosaldeko osasun zerbitzu espezializatu guztia Asuncion Klinikari emango zaio.

Anbulatorioko langileei ez zaigu, momentuz, proiektu horren gaineko inongo informaziorik eman, ez proiektua zertan dartzan, ezta gure etorkizuna zein izango den ere.

Tolosako espezialitateetako anbulatorioko langile moduan gure kezka azaldu nahi dugu gure etorkizun profesionalaren gainean. Era berean, gai honen kudeaketari dagokionez gure gaitzespena azaldu nahi dugu;

ezkutuan eta iluntasun osoz eramaten ari direlako. Bai guri, Osakidetzako langileei begira, eta baita aldaketa honek guztiok eragiten dien Tolosaldeko herritar guztiei begira ere.

Bigarrenoz, duda serioak ditugu Asuncion zentro pribatua eskualdeko osasun zerbitzu espezializatua oso-osorik bere gain hartzeko gai izango ote den. Gure anbulatorioko jarduerari zentro publiko batean daiteke halako paziente kopurua ezin duela artatu aipatutako klinikak, berak bakarrik.

Amaitzeko, Tolosaldeko espezialitateko osasun zerbitzu pribatizatzen bada, eskualdeko herritarrei zentro publiko batean artatuak izateko eskubidea kentzen zaie; horrek, gainerako herritarren eskubideen azpitik jaritzen gaitu. Gainera, ezin da ahaztu osasun zerbitzu publikoaren helburua gaixoei behar duten asistentzia ematea dela; osasun zerbitzu pribatuarena berriz, onura ekonomikoak lortzea (nahiz eta hori erabat legezkoa izan).

Eufemismo eta zuzentasun politikoaren garai honetan, funts-desbideratzeak 'finantza ingeniari' izatera pasa diren moduan, edota enpresariengalderak 'hazkunde negatiboak', pribatizazioari 'konzertazioa', 'sinergia' edo 'birbanaketa' mozo-roak jarriko ote diren beldur gara.

Gure ustez hirugarren pertsona batzuek etekina atera nahi

dute diru publikoarekin, besterik ez; eta hori guztia, Tolosaldeak egun duen osasun sistema publikoaren kalitatearen kalderako da.

■ **Izaskun Dorronsoro eta Gemma Chirino Tolosako Espezialitateen Anbulatorioko Langileen Batzordearen izenean.**

Gazteluko herritarrei

2010eko irailaren 12an Gazteluko Herritarrek taldeko zinegotzietatik HITZAN argitaratu zuten idatzia erantzunez, non gezurra eta probokazioa besterik ez zuten adierazten, azaroaren 19an HITZAN bertan albiste bat kalera-tu zen. Idatzi horretan lehen aipaturiko zinegotzietatik legegaldituen aurrera eramandako egitasmo guztiei buruz eztabaida publikoa egiteko deia luzatzen nien. Egun berean dei hori baita koitzaren etxera bidai nien.

Idatzi honen helburu bakarra Gazteluko EAJko zinegotzietatik eztabaida publiko horri **uko egin diotela** informatzea da. Jarrera horrekin beraien xede bakarra gezurra eta herritarren arteko liskarra sortzea besterik ez dela demostratzen dute.

Idatzi hau aprobetxatu nahi dut berriro ere bi alderdien arteko gatazkak direla eta, lasaitasuna eskatzeko. Gure herriak asko sufritu du, baina iraganari begira, baino etorkizunean pentsatu behar dela uste baitut.

■ **Patxi Iturriaga, Gazteluko alkatea.**



Ibarrako jokalaria Asturiasen izan ziren asteburuan. HITZA

3-1 galdu du Lauburu taldeak Asturiasen

Ribadesella herrian izan ziren asteburuan ibartarrak; Ander Esnaola 'Txipi'k sartu zuen gol bakarra

sen, hitzetan beste taldea ez da bezelako on, baina partidaren «adore» gehiago izan zuten.

Eguneko lehen gola Asturiaskoek sartu zuten lehen zatiko 19. minutuan.

Bigarren zatia ere 1-0 emaitzarekin hasi zuten, Ander Esnaola 'Txipi' bigarren zatiko 28. minutuan ibartarren gol bakarra sartu zuen arte.

Lauburuko hurrengo partida bi aste barru izango da, aste honetan atsedendaldia dute eta. Norgehiagoka Burgosko taldearen aurkakoa izango da.

Erredakzioa Ibarra

Ibarrako areto-futboleko Lauburu taldeak 3-1 galdu zuen pasa den asteburuan Asturiasko Ribadesellan.

Ibarrako taldeko prentsa arduradunaren, Jose Manuel Tobia-

→ Laburrak

Elkarretaratzea eraildako azken emakumearengatik

TOLOSA › Emakume bat erailtzen duten guztietan bezala, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxako plataformak elkarretaratzea deitu du bihar, atzo Barakaldon 25 urteko emakume bat erail izana salatuz. Elkarretaratzea 19:30ean izango da Trianguloan.

'Sagarren denbora' dokumentala, bihar

TOLOSA › Sanblaspioko Gazte Asanbladak antolatuta *Sagarren denbora* dokumentala eskainiko dute bihar 19:30ean Otsabi elkartean.

'Hondakinek badute irtenbidea' hitzaldia, bihar

IBARRA › Gipuzkoa Zero Zabor plataformak hondakinen kudeaketaren inguruko hitzaldia eskainiko du bihar 19:00etan Ibarrako Kultur Etxean.



2011 agenda

Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherriko plaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepede mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**



Patxi Iturriaga Gazteluko udaletxean. HITZA

Iragarki laburrak

SALGAI


■ **Ekonomia.** Lakuntza markako ekonomika salgai. Clásica modelokoa da. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. Interesatuek dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 649 51 09 41.

ALOKAIRUA

■ **Atikoa.** Tolosako Alde Zaha-

rrean atikoa alokatzen dut. Gela bakarrekoa da eta igogailua eta tximinia ditu. Interesatuek dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 618 13 00 81.

■ **Etxebizitza.** Borda edo base-ri xume bat alokatuko genuke. Interesatuek dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 634 45 91 10ra.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Lan «eskerga eta isilari» saria

Galtzaundi Euskara Taldeak kirolari, kulturari, gizatasunari eta euskarari Aipamen Berezia banatu ditu

Erredakzioa Gizarte

Euskararen Egunarekin bat egin ez pasa den ostiralean *Eskerrak Zuri* aipamen bereziak banatu zituen Galtzaundi Euskara Taldeak. Kirola, kultura, gizatasuna eta euskararen alorrean egindako lan isila hartzen du kontuan Galtzaundik omenaldia egiterakoan. Aurtengoan, Ibarako Emakumezkoen Sokatira Taldeak, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin eta Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsak jaso dute Aipamen Berezia. Ohorezko Aipamena, berriz, Mattin Amundarain euskaltzaleari eman diote. Mattin Amundarain amezketararen kasuan, «euskararen alde han eta hemen egindako lan handia» eskertu nahi izan du Galtzaundik. Amundarainek Arra-

sate Euskaldun Dezagun euskara elkarrearen sortzaileetako izan zen, eta Ikastola sortzeko mugimenduan ere parte hartu zuen. Amezetarrak hunkiturik jaso zuen saria Lazkaoko fraide beneditarren liburutegiko arduradun Joan Joxe Agirre iazko Ohorezko Aipamenaren eskutik. Guztien artean euskara sustatu etaultzatzeko beharra azpimarratu zuen Mattin Amundarainek.

Kirola, kultura eta gizatasuna
Kirolaren arloari dagokionez, Ibarako Emakumezkoen Sokatira Taldeari saria ematea erabaki du Galtzaundik. Talde gaztea izanagatik izan dituzten lorpenak eta egindako lana hartu dute kontuan. Bestalde, Kulturaren Aipamen Berezia Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsari eman dio, «pertsonaiak berpiztu, kaleak alaitu eta Euskal Herri mailan izen ona lortu dutelako». Gizatasunari Aipamena, berriz, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin eman izan da, «sahararren egoera eza-gutarazi eta hauek laguntzeko egiten duten lana eskertzeko».



Mattin Amundarainek Joan Joxe Agirre iazko Ohorezko Aipamenaren eskutik jaso zuen saria. IT.



Ibarako Emakumezkoen Sokatira Taldeak jaso du aurtengo Kirolaren Aipamen Berezia. IT.

↓ Sarituak

'ESKERRAK ZURI' AIPAMEN BEREZIAK

- **Kirola.**
Ibarako sokatira taldea.
- **Kultura.**
Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsa.
- **Gizatasuna.**
Tolosaldea Sahararekin elkarrekin.
- **Ohorezko aipamena.**
Mattin Amundarain.



Iñaki Moyua Matxin Labaienaren eskutik saria jasotzen. IT.




Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak. IT.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena


ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko gutxiatara egokitzen diren Hiletza Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Alcorcon herriko Perez familia eta Burgos eta Cantabriatik etorritako bikotea, Turismo bulegoan informazioa jaso ostean. E. MAIZ

Bisita asko izaten ari da eskualdea. Katalunia, Castilla eta Leon eta Balear irletatik etorri da jende gehien


Tolosaldera egun pasa

Erredakzioa

Urrutira joan beharrik gabe, Tolosaldeak ere badu zer ikusia. Gu kanpora begira eta kanpotarrek hona begiratu ohi dute. Jai egunetan ihesalditxo bat egiteko, aukeratuen artean dago Euskal Herria. Baita Gipuzkoa eta bere bihotzean kokatzen den Tolosaldea ere. Nahiz eta askok bost eguneko zubia izan, gehienek, egun bateko bisita egin ohi dute gurean.

Tolosako kaleetara atera eta ez da zaila turistekin topo egitea. Askok, turismo bulegoaren ondoren aurkitu daitezke zer ikusi edota nora joan galdezka eta beste batzuk, garbi dute zer ikusi nahi duten. Batzuk, lehen aldiz inguratu dira Tolosaldera eta beste batzuk, errepikatu egiten dute.

Perez familia bere alabatxoarekin batera Madrildik eta zehazki, Alcorcon herritik etorri da gurea. Donostian hartu dute lo egiteko lekua, baina, oportetara etorri



Turistak, kalean argazkiak ateratzen. I. TERRADILLOS

aurretik, ikusi beharreko tokien artean apuntatuta zeukaten Tolosara egin beharreko bisita. «Orokorrean asko gustatu zaigu dena. Oso txukuna da, jende jatorra topatu dugu...», diote.

Gizonak «lanarengatik ez bultzatzen, bizitzera etortzeko moduko tokia» dela dio. Herri txikietan barrena ere ibili dira eta kexa bat ere aipatu digute: «Errepideak

oso gaizki seinaleztatuta daude. Behin baino gehiagotan galdu gara».

Burgos eta Cantabriatik etorri dira Ruben eta Anabel. Ez zeukaten garbi zer ikusi, baina «Donostiatik Gasteizerako bidea egiten ari ginen eta erdi bidean, Tolosan sartzea erabaki dugu», adierazi dute.

Bitartean, turista gehiago ere

gerturatu da Tolosako Alde Zaharrera. Eguraldia lagun izan dute eta opor egun hauek gogoan izateko, argazki bat baino gehiago atera dituzte. Trianguloan ere, argazki makinak martxan ikus zitezkeen atzokoan.

Esku artean orri informatzaileak dituztela, San Frantzisko pasealekuan Iñiguez de Onzoño familia bazkaltzeko leku bila zebilen. Hauek, Castro Urdialesetik etorri dira semearekin. Ezagutzen zuten lehenagotik ere Tolosa baina berriz etorri dira bisitan. Eta besteak beste, Topic bisitatu dute.

Astelehena bitarteko datuak

Goiz da datu zehatzak izateko eta batz bestekoak ateratzeko, baina turismo bulegoan adierazita-koren arabera, hiru egunetan mugimendu handia antzeman dute. Turismo bulegoan, sartu atera jendea asko ibili da.

Kontuan izan beharreko datua da, turista guztiak ez direla turismo bulegotik pasatzen. Osteguna bitarte ez dute lo lekuen daturik izango eta beraz ezin da jakin eskualdeko ostatu, landetxe edota

hotelek zenbateko okupazioa izan duten.

Astelehena bitarteko datuen arabera, 200dik gora lagun pasa da turismo bulegotik. Horietatik erdiak gutxi gorabehera, Espainiako Estatutik etorriak izan dira. Gehiengo, Kataluniatik, Castilla eta Leonetik eta Balear

Turisten mugimendua nabari da eta goiz edo arratsalde pasa etortzen dira gehienak

irletatik etorriak izan dira. Urrutira joan gabe, bisita gehien egiten dituztenak gipuzkoarrak eta nafarrak dira. Atzerritik ere, 15 bat lagun gerturatu da informazio bila.

Txuletaren Festak ere, jendea erakartzen duela adierazi dute. Ia bazkari eta afaritarako txartel guztiak salduak daude eta bertakoak asko badira ere, igandean eta astelehenean Estatutik asko gerturatu zirela adierazi dute.

Turismo bulegoko arduradunen hitzetan, Txuleta Festa dela eta, bisitari asko eta askok, «alde aurretik edota ondoren, herria edota eskualdea ezagutzeko aprobetxatzen dute».

● tolosaldea@hitza.info



Tolosaldea HITZAK hitza

HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** pare du

LAGUN ARO GBC
Gran Canaria 2014

saskibalo partida

Abenduak 12 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

Gure festa eroenen argazkien bilketa

Tolosako Inauterietako irudiekin erakusketa osatzen ari da Udala; herritarren argazkiak jaso nahi dituzte

Iñigo Terradillos Tolosa

Tolosako Udala Inauteriei buruzko erakusketa bat prestatzen ari da 2011 urtearen hasierarako, eta horretarako herritarren parte-hartzea eskatu du. Herritarrek etxean dituzten argazki zahar nahiz berriak utzi ditzakete, eta ondoren, horiek Aranburu jauregian jarriko duten erakusketan egongo dira ikusgai. Era berean, erakusketarekin batera Inauteriekin loturiko hainbat jarduera ere egin nahi dituzte.

Tisbat sailak bultzatu du *Inauterietako 2011* ideia, eta Nestor Ardanaz argazkilari tolosarra ari da koordinatzen, irudien hautaketa eta tratamendua egitearekin batera. Ekimen honetan nahi duen pertsona orok har dezake parte, soilik baldintza bat bete beharko delarik, uzten diren argazkiak Tolosako Inauterietakoak izatea.

Argazkiak edozein eratakoak izan daitezke, zaharrak nahiz berriak, zuri beltzean nahiz koloretan, erretratuak nahiz orokorrak... guztiak dira baliagarriak ekimenaren bultzatzaileentzat. Parte hartu nahi dutenek argazkiak Kultur Etxera eraman edota *jeikijeiki@gmail.com* helbidera bidali besterik ez dute egin behar, gainontzeko guztiaz antolatzailerak arduratuko baitira. Hala, argazkiak uztean, fitxa moduko bat bete beharko dute, eta horiek digitalizatu eta gero, astebeterra, jabeari itzuliko dizkiete.

Askoren parte-hartzea

Proiektu honen ardatza Aranburu jauregian jarriko duten erakusketa izango da. Nestor Ardanazek azaltzen duen bezala, hau hainbat elementuz osatua egongo da: «Herritarren argazkiekin egoniko proiektio desberdinek osatuko dute erakusketa, eta horiez gain, Inauteriei buruz hainbat herritarrei —ezagunak nahiz ezezagunak— egoniko elkarrizketak ere erakutsiko ditugu». Dena den, herritarrek parte hartzea eta euren argazkiak uztea da duten helburu nagusia: «Jende asko lo-



Ero Etxe txarangako partaideak, pasa den urteko Inauterietan, kalejiran. IMANOL GARCIA

tsatu egiten da erretratuak izan ohi direlako normalean Inauterietako argazkiak, baina guk denetarik nahi dugu, eta garrantzitsua da gerora ere hori gordeta geratzeko, beraz, guztiak animatzen ditugu argazkiak ekartzera». Izan ere, bilduko dituzten argazki guztiak Udala Artxiboan gordeko dituzte Inauterietako bilduma osatua eratze aldera.

Herritarren argazkiak bezala, herriko argazkilarien argazkiak ere jasoko dituzte ekimen honetarako. Halaber, Tolosa & Co merkatarien elkarteak ere parte hartuko du, dendetako erakusleihen joko moduko bat eginez, eta Tolosaldea Tour turismo bulegoak ere bat egin du, ikusgai izango den bideo egitean.

o tolosa@hitza.info

↓ Inauterietako 2011

PARTE HARTZEKO

- **Non.** Kultur Etxean utzi daitetzke argazkiak, edo bestela *jeikijeiki@gmail.com* helbidera bidali. Gehienez 5 argazki.
- **Noiz.** Etzi izango da azken eguna.

Irudia ◊ Gizartea



ELORDI ETA ITURRALDE OMENDUAK

Tolosa & Co Tolosako merkatarien elkarte berria formalki sortu dute. Hain zuzen ere, pasa den ostegunean egin zuten elkartearen batzarreko burukideen aukeraketa Tolosako udaletxean. Pedro Tolosa izango da lehendakaria eta Elitxu Ilario lehendakariordea. Bestalde, Alde Zaharra Dendak

eta Igarondo elkarteko azken lehendakariari, Itxaropena Elordiri eta Anate Iturralderi, omenaldi txiki bat egiteko ere baliatu zuten unea. «Merkataritzarekiko eta herriarekiko izan duten konpromisoa eta egin duten lan handia» eskertu nahi izan dute horrela. HITZA

Jaiotzen Lehiaketan parte hartzeko aukera

Lau lagunez osaturiko taldeetan eman daiteke izena; sari potoloak eskuratuko dituzte hiru jaiotza hobereenek

Erredakzioa Tolosa

Urtero bezala, San Bernardo, Ttente, Kazkabarra, eta Kirikiño aisialdi taldeek Jaiotzen Lehiaketan parte hartzeko deialdia luzatu dute. Abenduaren 30a baino lehen eman beharko dute izena parte hartu nahi dutenek, Kultur Etxean edota www.zazpitantriangulon.com web orriaren bidez. Bestela, urtarrilaren 5ean bertan egin ahalko da, Plaza Zaharrean, 18:30ak baino lehen.

Taldeka eman daiteke izena, eta hauek, gehienez, lau lagunez osatuak egon beharko dute. Lehiaketan parte hartuko duten jaiotza guztiek Errege Kabalgatan parte hartuko dute urtarrilaren 5ean, eta horretarako, Plaza Zaharrera joan beharko dute, 18:30ean. Errege Kabalgata amaitu ondoren eta sari banaketa burutu arte, jaiotzak Zerkausion erakutsiko dituzte.

Sari potoloak eskuratu ahalko



Jaiotzarekin kabalgatan. E.E.

dituzte parte-hartzaileek: irabazleek 40 euroko erosketa txartela jasoko dute taldeko partaide bakoitzarentzat; bigarren geratzen direnek 30 euroko erosketa txartel bana lortuko dute; eta hirugarrenek 20 euroko erosketa txartelak. Txartel hauek Tolosa & Co merkatarien elkarteko dendetan erabili ahalko dira.

Lehen hirurek ez ezik, parte-hartzaile orok jasoko du opariren bat. Sari banaketa Zerkausion egingo dute, Errege Magoak bertan dauden bitartean. Epaimahakideek jaiotza egiteko eskulanaren trebetasuna, originaltasuna edota abilezia bezalako ezaugarriak hartuko dituzte kontuan jaiotzak aukeratzeko orduan.

Unai Igartua ◦ 'Sua' filmeko kidea

Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak 2004an hasi zen 'Sua' filma grabatzen. Sei urteren ondoren, estreinaldia gertu aurkitzen da

«'Sua' filmaren azken fasean aurkitzen gara jadanik»

Asier Imaz Zinea

Hartu sorginen pertza bat eta geldo-geldo, patxadaz, ondorengo osagaiak sartzen hasi: Euskal Herriaren historia; irudimena; ikasteko beharrezkoa den ezjakintasuna eta gogoa; diruarekiko mespretxua eta aisialdia; kamera bat, gidoi bat eta egurrezko lau klaketa; zazpi lurraldeetako paisaiak; euskalkiak eta euskal herritarrak; mandragora eta zerbeza; autogestioa eta auzolana; Mariren babes pixka bat eta zaporea emateko azkenik, belar pixka bat.

Jarri sutan sorginen pertza, eta sei urteren bueltan ez baldin bada ezer ateratzen, «lasai, zazpigarreanean ziur, hurrengo urtean *fijo* aterako da».

Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak *Sua* izeneko filma amaitzen ari da. 1609. urteko inkisizioa kontatzen dute bertan, Pier de Lancre Lapurdira iritsi zeneko unea. 2004ean hasi zuten proiektuko kidea da Unai Igartua (Ikaztegieta, 1978).

Ezinaren eta nahiaren arteko borroka, 2011. urtean garaile bat izango duela iragarri du du Tolo-

san bizi den ibar tar ikaztegieta-rrak.

Eta, pelikula noizko?

(Barreak). Hurrengo urtean *fijo*. Ziur; serio. (Barreak). Asko ari zaigu luzatzen proiektua, uste baino gehiago, baino tunelaren amaieran argia ikusten hasiak gara.

Azken urteetan zenbat aldiz errepikatu dizute galdera hau?

(Barreak). Askotan. Baina hori ona dela uste dugu. Ezer ez galde-tzea izango litzateke txarra. Sua ikusteko jendea irrikaz dago.

Nola aurkitzen du unehonetan 'Sua' filma?

Gezurra badirudi ere, azken fasean aurkitzen da. Hala ere, mundu hau guretzat erabat ezezaguna da eta ez dakigu azken fase honek zenbat iraungo duen.

Zenbat denbora daramazue fase horretan?

Nahi baino gehiago. Baina nik uste denok ulertzen dugula *Sua* auzolanean eta gure denbora librean egiten ari garen pelikula bat dela. Egiteke geratzen zaiguna itzaleko lana da, ez hain erakargarria, baina beharrezkoa; aurrez egindako akatsak fase hone-



A. IMAZ

tan konpondu edo ezkatatu behar dira, nahiz eta, askotan ezinezkoa suertatzen den. (Barreak).

Zehatz, zergelditzen da egiteko?

Bikoizketa lanak bukatzea, soinuarekin arazoak izan ditugulako, eta muntaiari azken ukituak ematea: musika eta soinu efektuak sartu, irudien koloreak egokitu eta... estreinaldi mundiala. **Zuen lehen lana, 'Eneko Aritza, Orreagako guda', Leidorren estreinatu zenuten 2003an. Sua lehen aldiz ikusteko aukera, bertan izango al da?**

Ez dakit. Erabaki hori taldean hartu beharko dugu. Baina gure eskualdeko jendeaz gain, Algorta inguruko jendea ere hor dago. Zazpi lurraldeetako hainbat lagun presentzia ere ez da ahaztu behar... ikusi beharko da. Proiek-

tuan ia 1.000 lagunek hartu dugu parte eta ez da erraza izango lekua aukeratzea; grabaketak egin ditugun lekuetan aurkeztu nahiko genuke denon artean egin dugun film luze-luze hau. Hala eta guztiz ere, estreinaldiari begira lanean hastea plazer bat izango da.

Zergatik diozu «luze-luzea», proiektuaren iraupenagatik edo azken emaitzaren iraupenagatik?

Biengatik. Baina batez ere filmaren iraupenagatik. Haserako muntaiak ia lau ordu zituen eta tamalez bi ordutara egokitu beharrean izan gara.

1.000 lagun ere aipatu dituzu; horrenbeste jende elkartzea nola lortu duzue?

Ahoz aho zabaldu den proiektu bat izan dela esango nuke. Sei urte hauetan grabaketa ugari egin ditugu, eta herri desberdinetan. Lekuan lekuko herritarrek parte hartzea gonbidatu ditugu eta hauen erantzuna bikaina izan da. Maulen adibidez, 300 lagun elkartu ginen; Baltzolako kobazuloetan 200; Meñakozeke hondartzan 150; Seguran 100...

Grabaketak jairako aitzakia izan direla ere entzuna dizut.

Sarritan jaiak grabaketak baino garrantzi gehiago izan du, ez baitugu ahaztu behar hau lagun arteko proiektu bat dela. Sufritzeko baino gehiago gozatzeko egin dugu.

'Sua' ikustera doanak zer ikusiko du?

Hau ez da produkzio komertzial bat. Baliabide ekonomikoak partaideen patrikaren tamainakoak izan dira, eta emaitzan argi ikusten da hori. Baina hori da aldi berean, guk dugun aberastasuna. Sorginen pertza honetan osagai asko sartu ditugu eta hortik zer

aterako den, Marik bakarrik daki. **Gure herriaren historia ikusteko ere ez da modu txarra.**

Aisialdian denbora alferrik galtzen ibiltzen gara askotan. Hala eta guztiz ere kostatzen zaigu asteburukotasun horretatik ateratzea. *Sua*ren berotasunean jende ugari ezagutu dugu; aisialdiari inoiz ahaztuko ez dugun balioa erantsi diogu eta Euskal Herriko historia eta euskal herritarren istorioak gertutik ezagutzeko aukera izan dugu. Hori guztia ikasteko ez da modu txarra, ez.

Historiaren pasarteekin jolas egiten duzue.

1609ko inkisizioaz edo Pierre de Lancrez azterketa bat duenak, *Sua*-tik ikasten baldin badu, agian bosteko bat lortuko luke.

Lehen aipatu dugun film laburrean, Eneko Aritza, Orreagako guda eta euskal jauntxoaren pasarteak aipatu zenituzten. Orain inkisizioarekin etorriko zarete, baina jauntxoak ahaztu gabe.

Zoritxarrez jauntxoaren gaitzak bizirik jarraitzen du mendez mende. Berdin dio zenbat herritar akabatzeko gai diren. Garai bateko Velasko, Urtubi edo Anore gaur egungo hau eta hori ditugu. Sarrionandiaren olerki batek argi eta garbi azaltzen du, kontuz biharko inkisizioekin. Oinarrian beti dago gauza bera, nahiz eta janzteko erak edo izenak aldatu. Euskal jauntxoek agintean batzeko tokia beti aurkitzen dute etsaiarekin elkartuz, ondorioz etsai bihurtuz.

Estreinaldiaren zain daudenei, zer esan nahi diezu?

Lanean gabiltzala eta laster emaitza gozatzeko aukera izango dugula. Ez dakigu, non, noiz eta nola, baina ziur ederki gozatzeko dugula.



'Sua' filmea grabatzen ibarrakoa izan da. HITZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizalde: 687 410 118. leizalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

ANTZERKIA

■ **Tolosa.** Libertablas Argentinako taldearen eskutik, *Pinocho* txotxongilo ikuskizuna, 18:00etan, Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan.

DEIALDIAK

■ **Leitza.** Mendibil taldeak irteera antolatu du larunbat honetarako Ixkibar eta Mandogegira. Maimur eta Astiz dendetan eman daiteke izena.
■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoia Eguberrietako Kontzertua eskainiko du, abenduaren 22an, Leidor aretoan, 20:30ean hasita. Leidor aretoko leihatilan edota Orfeoia Nafarroa etorbidean duen egoitzan eskuratu ahalko dira sarrerak, 12 euroan. Bazkideek nahiz orfoiaren babesleek doan eskuratu ahalko dituzte Orfeoitik bidalitako eskutitza entregatuz.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: 17:00etan, *Iratoxen erregea* gaztetxoentzako filma euskaraz; 19:30 ean eta 22:00etan, *The town*.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro zuzoa, 9, 943 67 51 18.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Orendain



BERRIA EGITEKO, ZAHARRA BOTA BEHAR

Hasi berri dira Eskolapioek Orendainen duten etxea botatzen. Azken urteetan ez du erabilera handirik izan eraikin esanguratsuak. Frantziako Ayestaran herritar parrokoaren eskari eta nahiez, 1936. urte inguruan hasi ziren eraikina egiten. Orain, Orendaingo Udalak, eremu

horretan 12 etxebizitza eraikitzeko asmoa du eta baita balioanizdun zentroa ere. Bertan, herriko ostatua, Haur Eskola, hirugarren adinekoentzako lokala, Liburutegia eta Kzgunea, gazteentzako bilgunea eta ezinduentzako tutoretzapeko etxebizitzak egingo dituzte. E. MAIZ

Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N A : _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P.K.: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: